

**10/2022 TXOSTENA, IRAILAREN 19KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA****XEDEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN
KONTRATAZIOAREN ARAUBIDEA EZARTZEN DUEN UZTAILAREN 27KO
116/2016 DEKRETUA ALDATZEKO PROIEKTUA.****I.- AURREKARIAK.**

Aurten, hainbat eskaera aurkeztu dituzte toki-administraziozko zenbait erakundek, Euskadiko Kontratazio Batzordeak kostuen egiturari buruzko proposamena baloratzeko txostena egin dezan eskatzeko, Espainiako ekonomia desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikulua araber.

Aldez aurretik, toki-erakunde horiek Estatuko Kontratuen Prezioen Batzorde Nagusiarik eskatu zioten, eta hark eskumenik ez zuela adierazi zuen, alegatuz txosten hori egiteko eskumena kontratazio publikoaren arloko organo autonomiko aholku-emailerik dagokiola. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektorerik Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzko uztailearen 27ko 116/2016 Dekretuaren 26.1 artikulua araber, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea da Euskal Autonomia Erkidegoko sektorerik publikoko erakundearen kontratazio publikoaren arloko berariazko organo aholku-emailerik, dekretu horren 2. artikulua irismen subjektiboarekin. Hau da, dekretu horren eremu subjektiboan ez dira sartzen toki-erakundeak eta foru-aldundiak.

Gure autonomia-erkidegoko toki-erakundeek planteatutako beharrik erantzuteko, egokitze jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen eskumenak aldatzea, Espainiako Ekonomia Desindexatzeko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluan aipatzen den txostena egitea barne.



Horregatik guztiagatik, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak dagokion espedientea izapidetu du Tramitagune prozeduren izapidetze elektronikorako aplikazio informatikoaren bidez, DNCG_DEC_3723/22_06 erreferentziarekin.

II. – ALDEZ AURREKO GOGOETAK. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA ETA TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.

Lehenik eta behin, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 3. 1 artikulua ezartzen duenez, “xedapen orokor arauemaileak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak”.

Alde horretatik, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko, horrek eragina duelako kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. apartatua xedatutakoaren arabera. Dekretu horrek honako hau dio:

“27. artikulua. – Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Hauei buruz nahitaez informatzea:

1. – Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak.”

Kontratazio publikoaren arloan eragina duen xedapen orokorreko proiektua denez, Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio txosten hori onartzeko eskumena, 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua arabera.

III. GOGOETA JURIDIKOAK.

Aipatu den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 26.1 artikulua jasotzen du Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea dela Euskal Autonomia Erkidegoko sektore



publikoko erakundeen kontratazio publikoaren arloko berariazko organo aholku-emailea, dekretu horren 2. artikulua irismen subjektiboarekin.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua c) apartatuak ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari dagokio “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera (...), idatziz”.

Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 2. artikulua, haren eremu subjektiboari buruzkoak, honako hau dio: “1.– Dekretu honen xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeei aplikatuko zaizkie, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 7.4 artikuluan zehaztutakoei, hain zuzen ere.”

Horrela, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 7. artikulua honako hau ezartzen du:

“1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoa administrazio orokorrak eta erakunde-mailako administrazioak osatzen dute.

2.– Administrazio orokorra edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa da, Euskadiko administrazio publiko guztian, lurralde-izaera daukan bakarra. Administrazio orokor hori Jaurlearitzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 53. atalean dago aipatuta.

3.– Honako entitate hauek osatzen dute erakunde-mailako administrazioa:

a) Zuzenbide publikoaren pean dauden erkidegoko erakundeak. Izena: erakunde autonomiadunak.

b) Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan, 2. eta 3. paragrafoetan adierazitako erakundeak daude, eta ondorengo hauek ere bai:

a) Sozietate publikoak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioak.

c) Berezko nortasun juridikoa duten partzuergoak, hain zuzen ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikuluko 5. paragrafoan, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 87. artikuluan adierazitakoak, baldin eta, partzuergoen egintzak zuzenean zein zeharka Euskal Autonomia Erkidegoko organo baten erabakitzeke ahalmenari lotuta daudela, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan txertatutako erakunde batek edo batzuek, gehiengo izanik, dirua, ondasunak edo industria eman badiete



partzuergo horiei, edo, eratzeko unean, partzuergoa gehiengoz finantzatzeko konpromisoa hartu badute.

Erakunde horietako bakoitzak berezko nortasun juridikoa izango du, gainerako erakundeek dutenaz bestelakoa.

5.– Administrazio orokorra edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa da legebiltzarrari atxikitako eskubide eta betebeharren jabea, nahiz eta eskubide-betebehar horien inguruan ganbara horrek dituen aginpideak ere kontuan hartu behar diren.”

Beraz, arestian azaldutakotik ondorioztatzen da gaur egun eremu subjektiboan ez direla sartzen bertako toki-erakundeak.

Bestalde, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9. artikulua Sektorre Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua aplikatzen zaien kontratuen prezioak aipatzen ditu, aurreko paragrafoan aipatutakoez bestelakoak. Kontratu horien prezioak aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspen-araubidea erabiliz soilik berrikusi ahal izango dira.

Araubide horrek ez dio kalterik egingo aipatutako testu bateginean aurreikusitako kontratuen ekonomia- eta finantza-berrorekarako eskubideari. Kontratu horiei aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspen-araubidea aplikatzeko, zenbait baldintza bete behar dira.

Lehenik eta behin, kontratua formalizatu zenetik bi urte igaro ondoren eta, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren ehuneko 20 bete ondoren soilik berrikusi ahal izango da. Azken baldintza hori ez da eskatuko zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen kasuan.

Bigarrenik, kontratuaren inbertsioak berreskuratzeko epea bost urtekoa edo gehiagokoa izan behar da. Prezioen berrikuspena ezin izango da, inola ere, berreskuratze-alditik harago luzatu.

Eta hirugarrenik, kontratuaren baldintza-agiriekin berrikuspen-araubidea aurreikusi beharko dute.



Era berean, efizientziaren eta enpresa-kudeaketa onaren printzipioa betetzen dela justifikatzeko, kontratazio-organoak dagokion sektoreko eragile ekonomikoei eskatuko die dagozkien kostu-egiturei buruzko informazioa emateko, eta jarduerarako kostuen egitura-proposamen bat egingo du, horretarako, hala badagokio, ematen zaion informazioa erabilita. Proposamen hori jendaurrean jarri beharko da pleguak edo baldintza-agiriak onartu aurretik, eta Estatuko Kontratuen Prezioen Batzorde Gorenari edo organo autonomiko baliokide bati bidali beharko zaio.

Bost milioi eurotik beherako prezioa duten kontratuen kasuan, igorpen horrek informatzeko baino ez du balioko. Bost milioi euroko edo hortik gorako prezioa duten kontratuen kasuan, Prezioen Batzorde Nagusiak edo autonomia-erkidegoko organo baliokideak nahitaezko txosten bat egingo du, eta txosten hori kontratazio-espedientean sartu beharko da.

Era berean, 9. artikuluko 7. apartatuak ezartzen duenez, Estatuko Kontratuen Prezioen Batzorde Gorenak gehienez ere hogeita eguneko epean eman beharko du nahitaezko txostena, kontratazio-organoak bidalitako kostuen egiturari buruzko proposamena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Batzordeak uste badu bidalitako informazioa ez dela nahikoa edo argibideren bat behar duela, informazio gehigarria eskatu ahal izango dio proposamena egin duen organoari. Errekerimendu horrek txostena emateko epea etengo du, kontratazio-organoak erantzuten ez duen bitartean.

Autonomia-erkidegoen, toki-erakundeen eta haien mendeko organismo eta erakundeen kasuan, txosten hori kontratazio publikoaren arloko organo autonomiko aholku-emalari eskatu ahal izango zaio, halakorik balego. Bestela, Estatuko Kontratuen Prezioen Batzorde Gorenari eskatu beharko zaio.

Hala ere, duela gutxi zenbait kasu gertatu dira, zeinetan toki-erakunde batzuek Estatuko Kontratuen Prezioen Batzorde Gorenari eskatu diote txostena, eta horrek eskumenik ez duela esan du, alegatuz txosten hori egiteko eskumena autonomia-erkidegoko kontratazio publikoaren arloko organo aholku-emalari dagokiola, eta, horrela, hutsaldu egin da aipatutako otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluko hitzez hitz dioena.

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek adierazitako premia ikusita, beharrezkotzat eta egokitzat jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen eskumenak aldatu, eta hau ere sartzeari: Espainiako



ekonomia desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluan aipatzen den txostena egitea.

Eskabide kopurua kontuan hartuta (orain arte, guztira, lau), ez da aurreikusten giza baliabide, baliabide ekonomiko edo material berririk beharko denik txosten horiek egiteko. Beraz, arau-aldaketa horrek ez dakar berekin Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen egitura edo aurrekontua aldatzea.

Toki-erakundeen kasuan, Espainiako Ekonomia Desindexatzeko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari buruzko txostena emateko organo eskudunari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorra izatea proposatzen da.

Horren oinarria uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 30.2 c) artikuluan dago. Artikulu horren arabera, Batzorde Iraunkorrari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren arloan Aholku Batzordeari aurkezten dizkioten gaien buruzko txostenak egitea, eta horregatik egokitzen jotzen da gai horri buruzko txostena egitea toki-erakundeen kasuan ere.

IV. ONDORIOAK

Azaldutakoa ikusita, eta txosten honetan jasotako zehaztapenak eta oharrak aintzat hartuko direlakoan, Batzorde honek aldeko txostena egin dio Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuari, sektore publikoko kontratazioari buruzko legeria kontuan hartuta.